



**360/2009 Ebazpena, martxoaren 25ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, agindua ematen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko C.1 Lanbide Taldeko (Teknikari Espezialista Sanitarioen kategoriak) aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hain zuzen ere hutsik dauden lanpostuena eta ordezkapenena.**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiaren bidez (EHAA 198 zk, 2008ko urriaren 16koa), egokitu egin da aldi baterako pertsonal estatutarioa Enteko zerbitzu-erakundeetan sartzeko sistema arautzen duen 2004ko urtarrilaren 26ko Erabakia, 2006ko Lan Eskaintza Publikotik eratorritako aldi baterako kontratazio-zerrendak prestatzekoa dena.

Zerrenda berriak 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiak araututako irizpideen arabera ordenatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren abenduaren 16ko 1509/2008 ebazpenaren bidez, Osakidetza web orrian C Lanbide Taldeko (Administrari kategoria izan ezik) aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak argitaratu ziren, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.


Aipatutako aldi baterako zerrenden inguruko erreklamazioak aztertuta,

## EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzea C.1 Lanbide Taldeko (Teknikari Espezialista Sanitarioen kategoriak) aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen aurka, interesa duten izangaiek hilabeteko epea izango dute ebazpen hau argitaratu den egunetik hasita, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari gora jotzeko errekurtsoa jartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 25a



**Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria  
JOSE ANDRÉS BLASCO ALTUNA**